



FORO DE BARRIO
AUZO-EZTABAIDAGUNEA
2018

MILAGROSA ARROSADIA AZPILAGAÑA

Fecha / Data:	2018/04/24
Hora / Ordua:	18:30
Lugar / Kokalekua:	Arrosadiako Civivoxa
Concejala de barrio / Auzo-zinegotzia:	Edurne Eguino
Participantes / Parte-hartzaileak:	11 emakume eta 6 gizon
Otros / Bertze batzuk:	
Moderadora / Moderatzailea:	Partaidetzako teknikaria: Elian Peña Dinamizazio Komunitarioko Zerbitzua: Borja Luque eta Maitane Urmeneta

Apertura / Hasiera

Elian Peñak, Herritarren Partaidetza eta Gizarte Ahalduntze Alorreko teknikariak bertaratuei ongietorria eman, eta eskertu die Arrosadiako eta Azpilagañako laugarren auzo-eztabaidagunean parte hartzea; 2018ko lehen eztabaidagunea da. Jakinarazi du eztabaidagunean, administrazioaren eta herritarren arteko partaidetzarako eta elkarrizketarako esparru bat eskaintzeaz gain, ontzi bat egongo dela udalari edozein gorabehera, zalantza, proposamen edo zorientze helarazteko.

Jarraian, azaldu du zer dinamika erabiliko den auzo-eztabaidaguneen formatu berrian.

Lehenik, Edurne Eguinok, auzoetako zinegotziak, hitza hartu, eta sarrera labur bat egin du; eskerrak eman dizkie etortzeagatik bertaratuei, eta taldekako lan-dinamikei hasiera eman die. Jarraian, bi talde egin dira, elkarren ondoko geletan, auzoari loturiko zenbait gai lantzeko; gero, amaitzean, landutakoa bateratuko da, eta erantzungo zaio.

Lantalde horietan, EDUSI (hiri-garapen jasangarri integratuko estrategiak) programaren barruan sartutako bi proiekturi buruz solastatuko dira. Batetik, hirigintza-plan bat, HJPB izeneko (Hiri Jarduketako Plan Berezia): horretan, aldaketak proposatzen dira espazio publikoetan zein pribatuetan. Bertzetik, komunitatearen eta bizikidetzaren diagnostiko bat: helburua da auzoko bizikidetzan esku-hartzeko talde egonkor baten abiaburu izatea.

Grupos de Trabajo / Lantaldeak

Bertaratuak bi talde horietan banandu dira bakoitzaren interesen arabera, dinamika hasteko.



2.1 EDUSI: bizikidetza eta komunitatearen diagnostikoa

Lagun hauek parte hartu dute taldean:

- Itsaso, Yoar eta Arrosadia Bizirik taldeetako eta komunitatearen diagnostikoko talde eragileko kidea
- Antonio, Plataforma de Afectados por *Bajeras de Ocio* de La *Milagrosa* taldeko kidea
- Antonia, ADACENeko kidea (Asociación de Daño Cerebral de Navarra)
- Rosa, auzotarra, bere izenean
- Maite Esporin, PSNko zinegotzia
- Xabier Errea, Iruñeko Udalaren Estrategia Bulegokoa (EB)

Edurne Eguinok, auzoko zinegotziak, lantaldean planteatu den gaiaren sarrera labur bat egin du, eta Xabier Errea aurkeztu du, Estrategia Bulegokoa.

Erreak hitza hartu, eta laburki testuinguruan jarri du komunitatearen diagnostikoaren proiektua; 2014an abiarazi zen, eta orain berriz heldu nahi diote gaiari.

Arrosadia auzoaren testuinguruko egiazko beharrak jakiteko auzotarrek egindako zenbait eskaeraren ondorioz, auzotarrez osatutako talde eragile bat sortu zen, komunitatearen diagnostikoa egiteko. Talde eragileak 14 elkarrizketa egin zizkien auzoko erreferentziako zenbait pertsonari eta 6 sektore-talde ingururi; horien bidez bizikidetzari buruzko diagnostiko bilakatzen joan zen komunitatearen diagnostikoa. Zenbait arrazoi tarteko, talde eragileak lana utzi zuen, eta, ondorioz, eten egin zen diagnostikoa.

Gaur egun, Iruñeko Udalak proposatu du laguntza teknikoa ematea, Carlos Vilchesen eskutik, talde eragileari laguntzeko elkarlanean, eta amaitu gabe geratu zenari berriro heltzeko. Estrategia Bulegoak honako proposamen hau egin du:

- Iraganean landutako edukia aztertzea.
- Foku-talde berriak osatzea lehen parte hartu zuten lagunekin.
- Inkesta/galdetegi bat egitea auzoko bizikidetzari buruz.

Prozesuaren ondorioz, txosten bat idatziko da lortutako emaitzekin, eta auzoan bertan aurkeztuko dira, bizikidetzari buruzko talde bat osatzeko; diagnostikoan oinarritutako lerro estrategikoak landuko ditu taldeak.

Etorkizuneko proiektu hori aurkeztu ondoren, hitza eman zaie taldeko parte-hartzaileei, eta honako ekarpen hauek egin dituzte:

- Auzoa okerrera doa.
- Zentro soziokultural bat behar da. Víctor Pradera ikastetxea.
- Liburutegiak ez ditu betetzen behar diren baldintzak.
- Auzoa hagitz zahartuta dago, eta espazioa hobeki egokitu behar da adineko pertsonen beharretara.
 - ✓ Edurne Eguino: badago asmoa auzoan Adinekoen Plan bat egiteko Erretiratuen Klubekin lankidetzan, prebentzioa lantzeko.



- Oinezko polizia gehiago behar da.
- Zarata handia dago Gayarre kaletik Zaragoza etorbideraino dauden terrazen ondorioz.
- Auzoko merkataritza sustatu behar da.
- Aparkatzeko zailtasunak daude gaez. Itxita dauden etxabeetan garaje-plazak egitea proposatu da.
- Bi proiektuetan haurren ikuspegia gehitu behar da.

2.2 EDUSI: HJPB

Talde honetan, 11 lagunek hartu dute parte guztira.

Sigifredok Martin eta bere kideak egindako sarrera:

Sarrera egin ondoren, parte-hartzaileek zenbait ekarpen egin dituzte, auzoaz duten ikuspegiaren arabera, planaren lehenbiziko zirriborroa aberaste aldera. Honela egituratu dira proposamenak:

1) ESPAZIO PUBLIKOA:

- ZUZKIDURAK ETA EKIPAMENDUAK.
 - ✓ Civivox edo liburutegi “duin” bat Arrosadian.
 - ✓ Guelbenzu zinema birgaitzea, erabiltzeko. Auzotar batek “alferrikako eremu” deritza zinemari.
 - ✓ Arrosadiako liburutegia birgaitzea. Auzotar batek erran du hagitz iluna dela eta ez dela irisgarria. Colectivo Urbanaseko kide den bertze auzotar batek nabarmendu du liburutegiaren sarrerak irisgarritasun txarra duela, eta leku gutxi irakurketa-klubetarako.
 - ✓ Honela erran du auzotar batek: “Mochuelo plazako gimnasioko altzariak ez dira erabiltzen jada, eta ez dute uzten jarduera komunitarioak egiten.”
 - ✓ Auzotar batek adierazi du ez dagoela iturririk auzoko unitatea dagoen plazan.
- EREMU LIBREAK.
 - ✓ Auzotar batek erran du auzoak (Arrosadia) berdegune gutxi dituela barruan.
 - ✓ Hegoalderen ondoko berdeguneari dagokionez, auzotar batek erran du espazio libreak zaindu behar direla, eta eskatu du bila ditzatela erabili gabe dauden eremu horiek erabiltzeko bertze era batzuk.
 - ✓ Auzotar batzuek azpimarratu dute hormigoi anitz dagoela, eta berdegune gutxi. Eta adibidetzat jarri dituzte Manuel de Falla eta Albéniz kaleak.
 - ✓ Colectivo Urbanaseko kide batek proposatu du plaka bat jartzeko Felisa Munárriz plazan, emakume haren bizitza azaltzeko.
 - ✓ Eskatu dute Alfredo Floristán plazan zerbait jartzeko, gogorarazteko toki horretan baratzeak zeudela aspaldi.
 - ✓ “Alfredo Floristán plazan ez dago itzalgune edo aterperik”.
 - ✓ “Auzoko Unitatearen kaleak ez du berezko izenik”.
- BIDEAK / OINEZKOENTZAKO BIHURTZEA.
- APARKALEKUAK.
 - ✓ Salatu dute bizikletentzako aparkalekurik ez dagoela Alfredo Floristán kalean.



- GARRAIO PUBLIKOA.
 - ✓ Eskatu dute minibus bat jartzeko, Arrosadiako goialdea behealdearekin konektatzeko.
 - ✓ Eskatu dute gaueko garraio publikoa jartzeko auzora iristeko.

 - IRISGARRITASUNA.
 - ✓ Komentatu dute Manuel de Falla kalea biziki estua dela.
 - ✓ “Ez dago loturarik Blas de la Serna plazaren eta Ilargi Enea parkearen artean”.
 - ✓ “Blas de la Serna kaletik eraikin adimendunen ondoko parkera sartzeko bidea ez da irisgarria”.
 - ✓ “Victor Pradera ikastetxerako sarrera ez da irisgarria”.
 - ✓ “Jesús Guridi zeharkalea ez dago ongi argizatuta, eta ez da irisgarria”.
 - ✓ “Ez dago ukimen-ikusizko zoladurarik Isaac Albénizen eta Manuel de Fallaren arteko bidegurutzean”.
 - ✓ “Osasun-zentroa eta inguruko farmaziak ez daude ongi seinaleztatuta”.

 - BERTZE BATZUK.
 - ✓ Gizarte-sarea sortzea.
 - ✓ Auzo-sena berreskuratzea.
 - Gazteei auzoan geratzea erraztuz, institutuak jarritz, adibidez.
 - Auzoaren inguruabar bereziak aprobetxatuz (alokairu merkeak eta abar) ekintzailtza sustatzeko. Horri esker, etxabeak berreskura litezke (lokalak); horiek gabe, “kaleak kale baino ez dira”.
 - ✓ Bi auzotarrek erran dute arazoak daudela zikinkeriarekin eta zaborrarekin Manuel de Falla kalean.
 - ✓ Negozio txikiei laguntzak ematea, etxabe huts gutxiago egoteko, adibidez Larregla kalean.
 - ✓ Auzotar batek aipatu ditu kultura ezberdinetako pertsonen arteko bizikidetzarazoak.
 - ✓ Santa Zezilia plaza apaintzen zuten txori-habia artistikoak kendu zituzten. Auzotar batek eskatu du berriz jar ditzatela.
 - ✓ Auzotarrek ikusten dute Arrosadia eta Azpilagaña biziki zahartuta daudela, eta adineko pertsonen kolektiboek lagundu behar zaiela.
 - ✓ Auzotar batek komentatu du haurren eta nerabeen ikuspegia txertatu behar dela arlo guztietan.
 - ✓ Bertze auzotar batek ohartarazi du berreskuratu behar direla auzoaren identitatea eta Andre Maria Erreginaren plazaren inguruko gizarte-sarea.
- 2) ESPAZIO PRIBATUA.
- ERAIKINEN EGOERA.

 - IRISGARRITASUNA.
 - ✓ Etxeetan igogailuak jar daitezzen erraztea. Auzotar batek erran du “araudia biziki murriztailea” dela.

 - EFIZIENTZIA ENERGETIKOA.
 - ✓ Auzotar batek erran du eraikinen efizientzia energetikoa hobetu behar dela. Eta



proposatu du horretarako laguntza edo mailegu gehiago izatea.

- ETXEBIZITZEN BARRUALDEA EGOKITZEA.
- INGURUMEN-BIRGAITZEA.
 - ✓ “Ez dago ikusizko kontakturik haur-eskolaren eta ondoko plazaren artean”.

Cierre / Amaiera

Amaitzeko, Eguinok interesa duten lagunak gonbidatu ditu HJPBren inguruan abiaraziko den prozesuan parte hartzera. Halaber, bertaratuei eskertu die etorri izana eta aktiboki parte hartu izana, eta proposatu die horrelako elkarguneetan parte hartzen jarraitzeko.